



Euskal Eskola Publikoaren festa bat, Lekeition. MARISOL RAMIREZ/FOKU

Steilas

PUBLIKOTASUNA ETA EUSKALTASUNA

Steilasek uste du euskara beharrezkoa dela inklusioa lortzeko, eta Euskal Eskola Publikoa horretarako topaleku bat dela.

Hezkuntza eta hizkuntza. Letra b a k a r b a t e k bereizten ditu bi hitz horiek, eta bien arteko lotura ere oso estua da. Izan ere, hizkuntza da hezkuntzarako tresna nagusia, hizkuntzaren bitartez irakasten eta ikasten baita. Alde horretatik, euskal hezkuntzako erreferente nagusietako bat da Steilas sindikatua. 1977. urtetik ari da lanean, Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Hezkuntzako irakasleen sindikatu bat da, haiek dioten bezala, «irakasleen eta ez-irakasleen topaleku», eta haur eskoletatik hasi eta unibertsitaterainoko hezkuntzaren alde dihardu. Euskal eskola publikoaren aldeko borroka da Steilasen ardatz nagusia, eta eraldaketa soziala bultzatzea du helburu.

Langileen eskubideak aldarri-

katzeaz gain, Steilasek pertsonen garapen integrala eta kritikoa bermatu nahi du hezkuntza ereduaren bidez, gizarte kohesioa bermatzen duen hezkuntza eredu bat, hain zuzen. Horretarako, euskara aldarrikatzen du tresna garrantzitsu gisa: «Jakina da hizkuntzak lurralde eta kulturen ikurrak direla; alde horretatik, gure herrian euskarak etxean sentitzen lagun gaitzakeen elementu bat da, edo beste era batera esanda, gizarte inklusiorako tresna bikaina izan daiteke».

Eskola inklusiboa defendatzen baitu Steilasek, «guztion eskola». Hezkuntza eredu hori lortu ahal izateko, desberdintasun sozialak eta muga pertsonalei aurre egin behar zaiela azpimarratzen du. Gainera, inklusioak gero eta presentzia handiagoa izan behar luke sindikatuaren aburuz, kontuan hartuz milaka etorkin etortzen direla urtero Euskal Herrira. Hori guztia aintzat hartuta, eskolak hainbat alderdi bermatu

beharko lituzkeela uste du: «Aukera berdintasuna sustatzea, jatorri ezberdintasunak alde batera utzita; arrazoi pertsonal edo sozialen ondorioz sortutako aldeak berdintzea, segregazioa ekiditeko; elkartasuna sustatzea eta ez indibidualismoa; lankidetzeta eta talde lana lehiakortasunaren aurretik; hezkidetzeta eta ez sexismoa, eta, azken finean, pertsona kritikoen garapen integrala eta ez prestakuntza profesional hutsa».

Orain arte euskarak eskoletan izan duen presentzia eta ibilbidea aintzat hartuta, sindikatuak euskal eskola publikoak euskararen hedapenean egin duen lan «parragea» nabarmendu nahi izan du, «azken 30 urteotan gehien euskaldundu duen erakundea baita». Horiek dira Steilasen bi oinarri nagusiak: publikotasuna eta euskaltasuna. Horregatik, sistema publiko «indartsu» bat eskatzen du, kualitatiboki eta kuantitatiboki.

Horrez gain, euskal eskola pu-

blikoa aniztasunaren topagunea dela nabarmendu du, eta euskara dutenak eta euskararen beharra dutenak elkarrekin egoteko toki bat dela. «Badakigu ezen, euskara dugunok gure artean bakarrik elkartzen bagara, hizkuntza horren erabilera gurekin amaitzen dela. Beraz, ezinbestekoa da gure gotorlekutik ateratzea eta bestekin elkar bizitzea, orain arte soilik gurea izan dena partekatzeke; eta hori da hizkuntzari euskal eskola publikoak egiten dion ekarpena, hain zuzen ere, euskara guztiona eta guztiontzat baita».

PUBLIKOAREN ALDE

Gainera, abenduan *Euskal eskola publikoak harro* deituriko kanpainan parte hartu zuten. Kanpaina horretan, jende ugari adierazi du hezkuntza publikoko komunitateko kide izateak harro sentiarazten dituela, eta hainbat ikas komunitatek egin dute bat manifestuarekin. Ekainean, kanpainari amaiera emateko, alderdi

politikoei eskatu zieten programetan sartzeko manifestuan jasota dauden aldarrikapenak.

Aipatutako aldarrikapenez gainera, Steilasek beste arlo batzuetan ere egiten du lan, eta arlo horietako pertsonen babesa eta laguntza erakutsi nahi izaten die. Esaterako, *Idazkaritza feminista* deritzoten arloa dute sindikatuan; aurten, gainera, *Emakume Idazkaritza Feministara* izenburua duen monografikoa aurkeztu dute, Steilasek azken urteetan landu duen pedagogia feministaren hastapenen nondik norakoak azaltzen dituen.

Aipatutakoaz gain, beste gizarte mugimendu batzuei ere babesa erakusten die, hala nola lan osasunaren alde dihardutenei eta LGTBI+ kolektibokoei.



Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.steilas.eus